BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

5713

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 24koa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarena, zeinen bidez erabaki baita enpresa honetako Kanpoko Larrialdietarako Plana jendaurrean erakustea: Aktiboak ez diren Hondakinen Troyako Urmaelaren (Gabiria - Gipuzkoa).

Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartu zituen uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren 11. artikuluan eta haren moldaketetan –119/2005 Errege Dekretua eta 948/2005 Errege Dekretua– ezarritakoa eta istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten Autonomia Erkidegoko organoak zeintzuk diren zehaztu zuen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuaren 3. artikuluko f) eta k) idatz-zatietan ezarritakoa aplikatzeko, gai arriskutsuak dituzten enpresen Kanpoko Larrialdi Planak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta gai arriskutsu horien kantitatea 1254/1999 Errege Dekretuaren eta haren moldaketen - 119/2005 Errege Dekretua eta 948/2005 Errege Dekretua - I. eranskineko 1. eta 2. zatietako 3. zutabean zehaztutakoa edo handiagoa bada.

Industrialariak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren bidez bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzak, beste erakunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin batera, enpresa honen Kanpoko Larrialdietarako Plana egin du: Aktiboak ez diren Hondakinen Troyako Urmaelaren (Gabiria - Gipuzkoa). Plan hau 20 egun baliodunez egon beharko da jendaurrean.

Horregatik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita, 20 egun balioduneko epean enpresa honen Kanpoko Larrialdi Plana jendaurrean erakustea: Aktiboak ez diren Hondakinen Troyako Urmaeleko (Gabiria - Gipuzkoa), hartara bidezkotzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin, Kanpoko Larrialdi Plana Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzan egongo da eskuragai (Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzara (Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz); sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 24a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,
PEDRO ANITUA ALDEKOA.